

/ Nabarmentzekoak

- > 2026ko jarduera programa hasi da dagoeneko Ingurumen Aretoan (2. or.)
- > "Altxorraren uhartea", familia osoarentzako erritmo, umore eta irudimen handiko ikuskizuna (3. or.)
- > V. Náutica Digital Sariak belaren egutegia irekiko du Abran (4. or.)

*Marina López Pozo: espazioko laboreen nutrizio-kalitatea hobetu nahi duen ikertzailea (4. or.)



NeguFest. Hilak 16, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, Raül Refree & El Niño de Elche. 25 euro.

Antzerkia. Hilak 17, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Desobedienteak 18/98", Tanttaka Teatrotarekin. 8 euro.

A-
GENDA

Fernando Guillén Cuervo "Testigo de cargo" antzezlaneko protagonista da, Agatha Christieren lanik enblematikoenetako baten antzerki-bertsio berria

Larunbat honetan, urtarrilak 10, Muxikebarrin *Testigo de cargo* antzezlanaren taularatuko da, Agatha Christie idazle eta antzerkigile britainiarraren lanik enblematikoenetako baten antzerki-bertsio berria. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 22 euro balio du.

Fernando Guillén Cuervo da proposamen honen buru, Fernando Bernuésen zuzendaritzapean. Berekin batera, agertokian, Lupe Cartié, Bruno Ciordia, José Luis Esteban, María Zabala, Markos Marín, José Cameán eta Nerea Mazo izango dira.

Intrigaz eta misterioz beteriko thriller judicial honek 1947ko Londresera eramango gaitu. Ilunabarrean hiria inguratzen duen lainoaren artean krimen ikaragarria gertatzen da. Alargun bakarti bat hil arte satautu dute bere etxean. Susmagarri bakarra Leonard Vole da, lehiatsu erakargarri bat, hildakoarekin adiskidetasun arraro bat zuena. Denen harridurarako, Sir Wilfrid Robarts abokatu ospetsu, beterano eta gupidagabeak akusatua defendatzea onartzen du. Ia ezinezkoa den kasu bati egin behar dio aurre. Susmagarriaren koartada bakarra erori egiten da emazteak bere aurka lekukotza ematen duenean. Romaine Vole emazteak dioenez, hilketaren gauean senarra etxera itzuli zen goizaldean, eskuak eta arropa odoletan zituela. Ustekabeko "akusazioaren lekuko" horren ondoren, epaiketa epaiaren zain dagoela dirudi. Hala ere, Sir Wilfrid Robartsek oraindik ez du azken hitza esan.

Bertsio berri honetan, trama thriller garaikidearen erritmoan kontatzen da, arnasa hartzen uzten ez duen tentsioarekin. Atmosfera hori gero eta trinkoagoa da hari eroale gisa balio duen judizioan.



Getxo Udalaren WhatsApp eta Telegram kanalak

Informazioa erabilgarri eta garrantzitsua herritarrei helarazteko kanalak


Canales para hacer llegar a la ciudadanía información útil e importante



Harpidetu
Suscríbete



Jakinarazpenak aktibatu
Activa las notificaciones





URTARRILAK 8 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Emmanuel Moureten "Tres amigas" (JBO). 3,50 euro.

URTARRILAK 9 OSTIRALA

Kontularien Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

Umorezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Katana" (euskaraz), Ana Goitiarekin. 8 €.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jaime Rosalesen "Morlaix" (JBO). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

URTARRILAK 10 LARUNBATA

Ipar Martxa. 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilaren 10a baino lehen) nw.itxartu@gmail.com helbidetan. Antolatzailea: Itxartu.

Dantza plaza. 19:30ean, Malakate parkean, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola. Doan.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Testigo de cargo", Fernando Guillén Cuervo, Lupe Cartié, Bruno Córdia, José Luis Esteban, María Zabala, Markos Marín, José Cameán eta Nerea Mazorekin. 22 euro.

URTARRILAK 11 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Lur eta Amets" (euskaraz). Adin guztientzat. 2,50€.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "La isla del tesoro" (gaztelaniaz), Inhabitants konpainiarekin. 8 euro.

URTARRILAK 12 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Migración y desplazamiento de las personas por causas ambientales: refugiados climáticos". Hizlaria: Antonio Urbina, Fisika Aplikatu Katedraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com/>

URTARRILAK 14 ASTEAZKENA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Puente Bizkaia: anatomía de un coloso de hierro" liburuaren aurkezpena (gaztelaniaz), José Antonio Reyer egilearen eskutik.

URTARRILAK 15 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Sandhya Suriren "Secretos de un crimen" (JBO). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Historias de risa sin prisa" (gaztelaniaz), Maricuelarekin. 5 urtetik gorakoentzat.

Literatura-solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Ana María Matuteren "Los soldados lloran de noche" liburuaren inguruan.

Neguan flamenco. 20:30ean, Muxikebarrin, Vicky González & Sara Castro. Sarrera gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxea eta Muxikebarrin). SGAE Fundazioaren ekimena, Getxo Kultura eta AIEren lankidetzarekin.

URTARRILAK 16 OSTIRALA

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Joshua Oppenheimerren "The End" (gaztelaniaz). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

NeguFest. 21:00etan, Muxikebarrin, Raül Refree & El Niño de Elche, 25 euro.

URTARRILAK 17 LARUNBATA

Storytime for babies. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Wesley Wimp" (ingelese). Izena emateko (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren, "Passione per l'Italia", Andoni Martínez Barañano (tenorea) eta Mikel Gaztañaga (pianoa).

Neguko bidaiia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Elurretan pasieran" (jazz). Iñar Sastre (pianoa), Hasier Oleaga (bateria) eta Jon Piris (kontrabaxua). 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Desobedienteak 18/98" (euskaraz), Tanttaka Teatroarekin. 8 euro.

URTARRILAK 18 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Amigos imaginarios" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Dixie eta matxinada zombia" (euskaraz). 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Amal" (gaztelaniaz), Compañía de Comediantes la Baldufarekin. 6 euro.

Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Aquí no paga nadie" (gaztelaniaz), Kamerino Teatrotarekin. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxea eta Muxikebarrin).



2026ko jarduera programa hasi da dagoeneko Ingurumen Aretoan

Larrañazubiko Ingurumen Aretoak 2026rako prestatutako jarduera programa urte berriaren hasierarekin batera jarri da martxan. Datuoz egunetan eta urtarril osoan hainbat jarduera egingo dira, guztiak doakoak.

Halere, alde aurretik izena eman behar da (688 883 596 telefonoaren bidez edo info@ingurumenaretoagetxo.eus helbide elektronikoaren bidez).

Asteburu honetan, hilaren 10ean, larunbata, *Aztarnen*

bila jarduera egingo da, 6 urtetik gorakoei zuzendua, gure inguruko animaliek uzten dituzten arrastoak identifikatzen ikasteko. Igandean, hilak 11, *Bio-diber tailerrak: hegaztientzako janlekuak plastikozko botilekin* izango dira, eta igandean, hilak 18, *Zomorroen bila*, gure inguruko intsektu eta zomorroen zati bat ezagutzeko aukera izango den jarduera.

Gomendioa HABetan izapideak egiteko

Udalak aurrera egiten jarraitzen du eraldaketa digitaleko planean, kudeaketa integraleko plataforma berria ezarri urtarrilaren 2tik. Plataforma horren helburua da, besteak beste, administrazio izapideak eta prozedurak erraztea eta arintzea.

Horregatik, urtarrilean, Herritarrentzako Arreta Bulegoak (HAB) ere sistema berrira egokitzeko eta hori ikasteko prozesuan murgilduta daude. Horren ondorioz, baliteke kudeaketa batzuek ohi baino denbora gehiago behar izatea eta unean uneko eragozpenak eragitea. Hori dela eta,

ahal den guztietan izapideak telematikoki edo telefonoz egitea gomendatzen zaie herritarrei. Aurrez aurreko arreta behar izanez gero, alde aurretik hitzordua eskatzearen garrantzia gogorarazten da (tel.: 94 466 00 00). Era berean, web bidezko arreta elektronikoko bulegoa aldatuz joango da, online kudeaketa gehiago egin ahal izateko.

Udalak herritarren ulermena eta lankidetzaren eskertu nahi du trantsizioaldi honetan, eta, era berean, lanean jarraitzen du denborak murrizteko eta zerbitzu hobea emateko.

Bestalde, hilaren 24an, ginkana fotografiko bat egingo da Boluetik. Hilaren 25ean, igandea, Ingurumen Hezkuntzaren Munduko Eguna ospatuko da, naturarekin berriz konektatzeko jolas bilduma batekin. Eta hilabetea amaitzeko, hilaren 31n, larunbata, Lurraren Beroketaren aurkako Ekintzaren Munduko Eguna izango da, eta 5 urtetik gorakoentzako *El ultimátum evolutivo* animaziozko filma ikusiko da. Bi txanda egongo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era.

Jarduera horiei eta urteko gainerako jarduerari buruzko informazio guztia hemen: www.ingurumenaretoagetxo.eus

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

GARBIGERTU GETXO
944660181
Hurbileko puntu finkoak 24 orduz eta egunero eskuragarri

ZALANTZARIK BADUZU, ZUZENEAN ERANTZUNGO DIZUTE

ASTEHEHENETAN, 17:30etik 18:30era
MALAKATE PARKEAN
GOBELAURREN (TXABARRI ZUAZO PARKEAN)

ASTEARTEETAN, 13:00etik 14:00etara
OLLARRETXE ETA SALSIDU KALEEN
BIDEGURUTZEAN - GERNIKA PARKEAN
AREETA GELTOKIA PLAZAN

ASTEAZKENETAN, 13:00etik 14:00etara
NEGURIN (METROAN)
ITURGITXI PARKEAN
ANDRA MARIKO KIROLDEGIAN

OSTEGUNETAN, 13:00etik 14:00etara
ALGORTAN (METROAN)
BIDEZABAL (BOROBIA PARKEAN)

Hondakin toxikoak eta arriskutsuak ez dira zaborra eta ingurumena kutsatzen dute!

Getxo **emaüs**

ZURE ALTZARIAK BESTE PERTSONA BATZUENTZAT BALIAGARRIAK BADIRA...

DEITU BILKETA ZERBITZURA

- ✓ ZURE ETXERA GOAZ
- ✓ DESMUNTATZEN DUGU
- ✓ JASOTZEN DUGU
- ✓ BERRERABILTZEN DUGU

Getxo **944660181** **emaüs**

ALBEren hasiberrientzako ikastaroa

ALBE-Algortako Bertsolari Eskolak bertsolaritzan hasteko ikastaroa antolatu du 16 urtetik gorakoentzat.

Ikastaroak 25 euroko prezioa du, eta urtarrilaren 14tik martxoaren 4ra egingo da Aldai Patronatuan (Karitate 1, Algorta). Eskolak asteazkenetan emango dira, 18:30etik 19:30era, eta bi talde ezarriko dira adinaren arabera: 16 eta 35 urte bitartekoak eta 35 urtetik gorakoentzat. Informazio gehiago jaso nahi dutenek edo izena eman nahi dutenek 605 70 43 85 telefonora deitu dezakete edo posta elektronikoko bat idatzi albegetxo@gmail.com helbidera. Informazio gehiago: <https://labur.eus/bertsolikastaroa26>

Algortako Bertso Eskola 1980an sortu zen, Uribe Kostan bertsolaritza bultzatzeko, talentu berriak sortuz eta Getxo euskal kultur tradizio honen puntu garrantzitsua gisa finkatuz.



“Altxorraren uhartea”, familia osoarentzako erritmo, umore eta irudimen handiko ikuskizuna

InHabitants antzerki konpainia Muxikebarrira iritsiko da igandean, hilak 11, *La isla del tesoro* (Altxorraren uhartea) ikuskizunarekin. Familia osoarentzako ikuskizuna da, erritmo, umore eta irudimen handikoa.

Quim Roca, Oriol Vázquez, Marta Mora, Miquel Rodríguez eta Ares Piqué dira protagonistak, eta

Robert Louis Stevenson obran oinarrituta dago. Jim Hawkinsen abentura eta altxor handiaren bila egindako bidaiak jarraitzen ditu. “Diotenez, aspaldi, pirata legendario batek patuak aldatzeko gai zen altxor bat ezkutatu zuen. Gaur egun, tripulaziotik bizirik atera diren azken pertsonak haren bila dabiltza oraindik, agian jada existitzen ez diren arrastoei atxikita. Istorio honen er-

dian Jim agertzen da, inoiz abentura batean murgiltzea imajinatu ez zuen tabernari gaztea. Bidaian jakingo du altxorrek ez dutela beti distira egiten, ongia eta gaizkia batzuetan nahastu egiten direla, eta okerrenek ere bigarren aukera bat merezi dezaketela”, adierazi dute konpainiatik.

Emanaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balio du.



Vicky González eta Sara Castro “Neguan Flamenco” zikloan izango dira

Vicky González (kantaria) eta Sara Castro (gitarra) Muxikebarrin ari tuko dira ostegunean, urtarrilak 15, *Neguan Flamenco* zikloaren bosgarren edizioan. SGAE Fundazioak sustatzen du ekimena, SGAEren Euskadiko Lurralde Kontseiluaren bidez, Getxo Kulturaren eta AIEren (Artista Interpretaren edo Musika Exekutatuzaileen Kudeaketa Erakundea) laguntzarekin.

20:30etik aurrera, eta doako sarrearekin, Extremadurako bi artista ezagun horiek eszenatokira igoko dira beren artea erakusteko. Extremadurako kantu autoktonoetan espezializatuta daude, hala nola jaleoetan eta tangoetan. Bikoteak emakumeak flamenkoan duen ze-

reginarekin aldarrikapena ere irudikatzen du, batez ere gitarraren esparruan.

Neguan Flamenkoa

Neguan Flamenco kontzertu ziklo bat da, emakume flamenko-kantariaren figura sustatzen eta aldarrikatzen duena, mikrofonoaren aurrean duen ausardiari balioa emanez. Tradizioz, flamenkoan gizonek betetzen zuten gehienbat kantariaren postua eszenatokira gainera, eta emakumeei uzten zieten dantzaren zeregina. Gutxi batzuek bakarrik borrokatu ahal izan zuten ausardiaz beren artea kantatzeko hesi horren aurka, kritikak eta zailtasunak onartuz eta belaunaldi berrientzako bide bat irekiz.



Ana Goitiaren umore zorrotza, “Katana” bakarrizketan

Ana Goitia lekeitiarrak *Katana* ikuskizuna aurkeztuko du ostiral honetan, urtarrilak 9, Muxikebarrin. 20:00etatik aurrera, umorista, aurkezlea, modako blogaria eta lodifobiaren aurkako aktibista eszenatokira igoko da bakarrizketa zuzen eta zorrotz bat aurkeztera, non egunerokoa material komiko eta hausnarketa partekatu bihurtzen den. Sarrearen prezioa 8 euro da.

Ikuskizun honetan, Ana Goitiak gaurko musikaz eta marketinaz hitz egiten du, *sold out* (sarrera agortuak) delakoaren amorruaz, familia osoak kontzertuez, matxismoaz, lodifobiaz eta gaurkotasuneko gaiez gozatzeko. Anak barre egiteko, bere burua zalantzan jartzeko eta zintzotasunez

begiratzeko espazio bat eraikitzen du. Zehatz-mehatz ebakitzen duen bakarrizketa bat da, esateko zerbait dagoen lekuan justu apuntatzen duen katana bat bezala.

Bere aurkezpenean artistak dio: “*Ana Goitia Erkiaga naiz. Anaxu laguntzat eta ez hain laguntzat. 40 urterekin konturatu nintzen bakarrizketak egiteak izugarriko plazerra ematen didala... Eta horixe egin nahi dut nire bizitzan, plazerra eta gozamen behin eta berriz sentitu eta sentitu. Hori bai, beti gardentasuna eta gordintasuna ardatz! Mihinari kosk egin gabe...”*


Ana Goitiak 2024ko abenduaren amaieran egin zuen bakarrizketari gisa debuta, Campos antzokian.

Ingurumen Zientzietan lizentziaduna eta Biologian doktorea EHU, NASArako proiektu batean ari da lanean

Marina López Pozo: espazioko laboreen nutrizio-kalitatea hobetu nahi duen ikertzailea

Marina López Pozo ikertzaile getotarra NASaren (Estatu Batuetako gobernuaren agentzia espaziala) *Leaf* proiektuan ari da lanean duela hilabete batzuetatik, AEBetako Coloradoko Unibertsitatean. Artemis misioen barruko funtsezko esperimentu bat da, landareak Ilargira eramango dituen (ziurrenik 2027an) grabitate partzialean eta erradiazio espazialean nola hazten diren aztertzeke, etorkizuneko giza misioetarako eta ilargiaren kolonizaziorako elikagai gisa labore jangarriak garatzea bilatuz. Ilargiaren azaleko landareen prozesu kimiko eta biologikoak sakon aztertzen dituen lehen esperimentua da, eta funtsezko urratsa da ilargiaren oinarrien epe luzerako jasangarritasunerako eta Marterako bidaietarako.

Marinak ezin du xehetasun zehatzagorik eman. "Ez didate uzten, sentitzen dut", esan digu. "Esan dezaket esperimentazioa oso ondo doala, baldintza espazialak oso ondo onartzen dituzten landare jangarrien espezieak aurkitu ditugula eta erantzun horiekin gogotsu gaudela. Adibidez, ikusten ari gara baldintza horiek (CO2 altua, erradiazioa, presio atmosferiko baxua) landareen nutrizio edukia hobetu dezaketela, eta horrek abantaila bikoitza duela; landareek arazorik gabe biziraungo lukete, eta astronauten menua nabarmen hobetuko litzateke. Sinergia hori funtsezkoa da espazioan iraupen luzeko misioek arrakasta izateko. Datak pixka bat aldatu dira, eta misioa (gure ilargi-kutxa barruan dagoela) 2027aren erdialdean aireratzeara espero da. Nire ikaskideek eta nik proiektu gehiagotan aplikatzen jarraitzen dugu etorkizuneko esperimentuetarako, baina deialdiak oraindik ez dira konpondu. Eta bai, nire kontratua beste 6 hilabetez luzatu da, eta finantzaketa jasotzen jarraitzeko eta gure espazio-ikerketarekin jarraitzeko zain eta itxaropenarekin gaude".



Neska bitxi bat

Marinari betidanik gustatu izan zaio zientzia, eta txikitatik gauza guztiekiko jakin-mina agertzen zuen. Baina agian espazioaren deia egun batean iritsi zen, Nuestra Señora de Europa ikastetxean Fisikako klasean, Jesus irakasleak ikasleei eskola ondoren arratsaldean eskolara joatea eskaini zienean, gauzezenean, teleskopioa erabiltzeko. "Saturno eta Ilargia ikusten saia gintezkeela esan zigun. Gogoan dut teleskopio hartatik begiratu eta eraztunak planetaren inguruko halo bat bezala ikustea. Ikaragarria iruditu zitzaidan, magikoa edo irreal, urrunekoa ere bai,

baina aldi berean... ia hor bertan ikusten nuen! Irudi hark harrapatu egin ninduen, liluratu. Ez polita zelako, baizik eta berezia iruditu zitzaidalako, ezagutzen nuen guztiarekin zerikusirik ez zuen zerbait, eta neure buruari galdetzen hasi nintzaion ea zer ote zegoen han, nola (edo ea) irits gintezkeen hara ikusteko, ea bizitza planetatik kanpoko beste leku batzuetan ezar zitezkeen, baina, batez ere, neure buruari galdetzen hasi nintzaion nola... eta hemen jarraitzen dut 20 urte geroago, galdera horri erantzuten saiatzen! Zientzia ona erantzuna ematen duena da, eta, aldi berean, beste bost galderari atea irekitzen diena...", ziurtatu du.

Ingurumen Zientzietan lizentziaduna eta Biologian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta baldintzak bete gabe aurkeztu zuen proiektu honetarako hautagaitza. "Eskaintzak doktoretza-titulua, curriculum vitae ona eta berehala sartzea eskatzen zuen, eta nik ez nuen horrelakorik. Sei hilabete falta zitzaizkidan doktore izateko, beraz, ez nuen titulurik eta ezin nintzen berehala sartu, eta nire CVa ez zegoen gaizki, baina oraindik gaztea nintzen eta hasita nengoan. Hala ere, "ezinezko" lan-eskaintza hura aplikatu nuen. Gogoratzen ahal dut apur bat "tonta eta barregarri" sentitzea, doktore titulurik gabe, inpostorearen sindromearekin sartu ezinik... agian pixka bat? Ona nintzela uste nuen, baina hura oso potoloa zen! Bidali nire CVa eta motibazio gutun bat. Beti uste izan dut gutun hark markatu zituela aurrekoa eta ondorengoa. Zintzoa izan nintzen, baina, batez ere, nigan sinetsi nuen, nire beldurrak eta lotsak ahaztu nituen, eta agian niretzat maila handiegia zela pentsatu nuen. Esan nien sei hilabete itxaroten bazidaten ekarpen handiak egin ahal izango nituela proiektuan, banekiela gaztea nintzela, baina nire motibazioa eta prestakuntza ikaragarriak zirela, eta badakizu zer? Kontratu egin naute! Sei hilabete eman nituen zain, eta lehen aldiz etorri nintzen AEBra (orain nagoen leku berera, Coloradora). Proiektu hura gogorra izan zen pandemiagatik, baina, aldi berean, ederra. Pandemiaren ondoren etxera itzuli nintzen denboraldi batez, Getxora, eta hemengo taldearekin elkarlanean eta proposamenak eskatzen jarraitu nuen, harik eta egun batean... Ilargiaren landare bat jartzeko proposamena finantzatua izan zen arte, eta hemen nago berriro! Horrela amaitu nuen proiektu (bigarren) honetan. Asmoa da beldurra gainditzea, norberarengan sinestea eta ilusioari eustea, ez du axola zein urrun dagoen eta zein zaila dirudien; nahi baduzu, horren bila joan behar duzu".

KIROLAK

V. Náutica Digital Sariak belaren egutegia irekiko du Abran

Marítimo del Abra Itsas Klubak (RCMA-RSC) antolatutako V. Náutica Digital Trofeoak 2026rako erakunde areetarrak prestatutako bela egutegi zabala irekiko duen proba da. Sariaketa larunbat honetan hasiko da, hilak 10, Abrako uretan, eta J80 monotipoak 11:00etan irtengo dira, eta Gurtzero klasekoak 11:15ean. Jardunaldi horrez gain, beste bi daude programatuta hilaren 24rako eta otsailaren 7rako.



tional Women's Sailing Cup, V. Engel & Völkers Saria, Regata a la Inversa estropadaren 41. edizioa edo Getxo-Santander-Getxo Plus Liga One 50+.

Eta udaldian, ekainean eta uztailean, puntako proba klasikoak eta oso garrantzitsuak egingo dira, hala nola J80 klaseko Espainiako eta Europako Txapelketa eta Gurtzeroen Bizkaiko Txapelketa, Eskarra Trofeoa, XXXV. Euskal Kostaldeko EKP estropada-Urrezko Balea Saria eta Copa Gitana; eta abuztuan, Getxo-Gijon estropada. Urte amaieran proba gehiago izango da.